Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko maiatzaren 25a, astelehena — 96 — Lunes, a 25 de mayo de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*40-092/2020 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, Gipuzkoako federazioen 2019/2020 eta 2020/2021 denboraldietako lehiaketa ofizialak antolatzeko funtzio publikoa bermatzeko administrazioaren eskuhartzeari buruzkoa.*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

Joan den martxoaren 14an, Ministroen Kontseiluak alarma egoera deklaratzea erabaki zuen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera, Covid-19ren pandemiak eragindako osasun-krisia zela eta.

Aipatutako osasun-krisia dela-eta dugun salbuespen-egoeraren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak ebazpen bat eman behar izan zuen 2020ko martxoaren 20an. Ebazpen horren bidez, jada garatzen ari ziren kirol-federazioen hauteskunde prozesuak eten ziren, bai eta horiek hasi ez zituztenentzako hauteskunde-prozesuak egiteko epeak ere, alarma-egoera amaitu arte.

Aldez aurretik, administrazio publikoek Euskal Autonomia Erkidegoko kirol jarduera federatu guztiak etetea erabaki zuten. Era berean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kirol lehiaketak bertan behera geratu ziren, eta une horretan ezin da zehaztu noiz eta nola ekin ahal izango zaien berriz. Horrek guztiak, ziurgabetasun eta segurtasun falta handia sortzen die lurralde federazioei, bai kirol lehiaketa horietan parte hartzen duten pertsonei; izan ere, une honetan ez dakigu osasun agintariek 2019/20 denboraldia amaitu baino lehen eta, hala badagokio, zer baldintzatan utziko dieten lehiaketa ofizial horiei berrekiten. Ez dakigu, ezta ere, zer gertatuko den azkenean lehiaketak amaitu behar badira, bereziki zer ondorio izango dituen igoera, jaitsiera, titulu ofizial eta abarretan.

Horren harira, 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 legeak, Euskadiko kirolarenak, 5 h) artikuluan xedatutakoaren arabera, foru aldundiei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, eskumen hau: «lurraldeko kirol federazioak onartzea, laguntzea, finantzatzea, ikuskatzea eta kontrolatzea beren egiteko publikoak bete ditzatela bermatzeko, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe».

Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.2 artikuluak aitortzen du, Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera, lurralde federazioei honako administrazio funtzio hauek betetzen dituztela, besteak beste, beren lehiaketa ofizialen antolaketa eta lehen aipatutako gai guztiak lehiaketa ofizial baten antolaketaren muinean sartzen direla. Halaber, 16/2006 Dekretuaren 18. artikuluak Gipuzkoako Foru Aldundiak organo eskudunari ahalmena ematen dio Gipuzkoako federazioek bete-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 40-092/2020, de 15 de mayo, sobre la intervención administrativa para garantizar la función pública de organización de las competiciones oficiales de las federaciones guipuzcoanas de las temporadas 2019/2020 y 2020/2021.*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

El pasado 14 de marzo, el Consejo de Ministros acordó declarar el estado de alarma en virtud del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, con motivo de la crisis sanitaria originada por la pandemia del Covid-19.

Como consecuencia del estado de excepcionalidad en el que nos hallamos por la citada crisis sanitaria, el Gobierno Vasco, se vio obligado a dictar, con fecha de 20 de marzo de 2020, una Resolución por la que se suspendieron los procesos electorales de las federaciones deportivas que ya se estaban desarrollando, así como los plazos para la realización de procesos electorales para quienes no las hubiesen iniciado, hasta la finalización del estado de alarma.

Previamente, las administraciones públicas acordaron la suspensión de todas las actividades deportivas federadas en el País Vasco. De igual modo, conforme a lo previsto en el artículo 10 apartado 3.º del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, las competiciones deportivas quedaron suspendidas, no pudiendo determinarse en este momento cuándo y cómo podrá, en su caso, procederse a su reanudación. Todo ello ha generado, en las federaciones territoriales, y a las personas participantes en tales competiciones deportivas, un escenario de gran incertidumbre e inseguridad pues, por un lado, en estos momentos se desconoce si las autoridades sanitarias van a permitir reanudar tales competiciones oficiales antes de la finalización de la temporada 2019/20 y, en su caso, en qué condiciones. También se ignora qué sucederá si finalmente hay que dar terminadas las competiciones, especialmente qué efectos acarreará en cuantos ascensos, descensos, títulos oficiales, etcétera.

En este sentido, la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, asigna, en su artículo 5 h), a las diputaciones forales de los territorios históricos la competencia para «la aprobación de las federaciones deportivas territoriales, así como su asistencia, financiación, intervención y control para garantizar el cumplimiento de sus funciones públicas, sin menoscabo de su actividad privada».

El artículo 14.2 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las federaciones deportivas del País Vasco, reconoce, en base a lo previsto en la Ley 14/1998, de 11 de junio, del deporte del País Vasco, que las federaciones territoriales ejercen funciones de carácter administrativo, entre las que cabe destacar la organización de sus competiciones oficiales y todas las cuestiones antes señaladas entran en el núcleo de la organización de una competición oficial. Asimismo, el artículo 18 del citado Decreto 16/2006 habilita al órgano competente de la Diputación Foral

EK\CV GAO-I-2020-02230

tzen dituzten funtzio publikoak behar bezala betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren salbuespenezko neurri guztiak hartzeko.

Kontuan hartuta ezinbestekoa dela Gipuzkoako federazioak lehiaketa ofizialak antolatzeko beren administrazio funtzio publikoa behar bezala bete ahal izatea bermatzea, beharrezkoa da, salbuespen gisa, administrazio organoak gaitzea, Covid-19ren ondorioz, 2019/20 denboraldiko lehiaketak amaitzean sor daitezkeen antolaketa gorabehera guztiak arintasunez konpon ditzaten, eta, lotura dela-eta, 2020/21 denboraldiko antolaketarekin.

Materialki ezinezkoa da Gipuzkoako federazio gehienentzat gai horiek batzar nagusiek onetsitako lehiaketa erregelamendu eta egutegien arabera ebaztea, xedapen horiek lehiaketen garapen eta amaiera normaleko egoera batean oinarrituta baitaude. Arauzko edozein aldaketak federazio-izapide guztiak eskatuko lituzke, administrazio organoak eta batzar orokorren esku hartzearekin, eta, ondoren, administrazio izapideak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentutik honen onespenarekin eta ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzearekin. Izapide horiek galarazten diete Gipuzkoako federazioei behar bezalako arintasunez eta segurtasun juridikoz ebaztea denboraldi honetako eta hurrengo denboraldiko antolamendu arazo guztiak; hurrengo denboraldia printzipioz, aste batzuk barru hasi beharko litzateke.

Aurreko guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza honek lan estua egin du kirolaren arloan eskumena duten lurralde historikoetako foru organoekin, euskal federazioentzat eta lurralde federazioentzat irtenbide komun bat bilatzeko; izan ere, 16/2006 Dekretuaren 37.6 artikuluaren arabera, euskal federazioek eta lurralde federazioek beren funtzioak koordinatu behar dituzte, kirol lehiaketen piramide egitura egokia bermatzearren.

Foru Agindu honetan jasotzen diren neurriak salbuespenezkoak dira, eta, beraz, behin-behinekotasun izaera dute; beraz, aipatutako aurreko salbuespen egoerari erantzuteko behar beharrezkoa den epean baino ez dituzte ondorioak izango.

Era berean, Foru Agindu honetan jasotzen diren neurriek proportzionaltasuna errespetatzen dute, kirol federazio bakoitzaren autonomian hain inbaditzaileak ez diren neurriak hartzen saiatu baitira, Covid-19tik eratorritako eskumen egoerak ebazteko. Horrela, kirol federazio bakoitzak erabakiko ditu irizpideak eta bertan behera utzitako lehiaketek jarraitu behar duten ala ez, edo, hala badagokio, noiz eta nola. Bestalde, lehiaketa horiek amaitu ezin badira, sailkapen ordena zein izango den ere erabaki beharko dute, pertsona fisiko edo juridiko irabazleak, igoerak eta jaitsierak, eta abar zehazteko. Gogoan izan behar da adierazitakoak, gainera, hurrengo kirol denboraldiari eragiten diola, kategorien, taldeen, parte hartzaileen edo egutegiaren osaketari dagokionez.

Foru Agindu hau administrazio kontu hartze honen xede diren Gipuzkoako federazio guztiei banan-banan jakinaraziko zaien egintza bat den arren, egokia dirudi, halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, jende guztiak jakin dezan eta ondorioak izan ditzan.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

de Gipuzkoa a adoptar cualesquiera medidas excepcionales resulten necesarias para garantizar el correcto ejercicio de las funciones públicas que desarrollan las federaciones guipuzcoanas.

Teniendo en cuenta que resulta imprescindible garantizar que las federaciones Guipuzcoanas puedan cumplir adecuadamente con su función pública de carácter administrativo de organización de las competiciones oficiales, se hace preciso habilitar con carácter excepcional a sus órganos de administración para que puedan resolver con urgencia todas las vicisitudes organizativas que se puedan suscitar, como consecuencia del Covid-19, con la finalización de las competiciones de la temporada 2019/20 y, por conexión, con la organización de la temporada 2020/21.

Resulta materialmente imposible para la mayoría de las federaciones guipuzcoanas que tales cuestiones se resuelvan con arreglo a los reglamentos y calendarios de competición aprobados por sus asambleas generales, pues tales disposiciones estaban basadas en una situación de normal desarrollo y finalización de las competiciones. Cualquier modificación reglamentaria requeriría toda una serie de trámites federativos, con la intervención de sus órganos de administración y asambleas generales, y posteriormente administrativos, con la aprobación del Departamento de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa y posterior inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco, que impiden a las federaciones guipuzcoanas resolver con la debida agilidad y seguridad jurídica todas aquellas cuestiones organizativas competicionales de esta temporada y la próxima que, en principio, se debería iniciar dentro de unas semanas.

Por todo lo anterior, la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco ha venido trabajando estrechamente con los órganos forales de los territorios históricos competentes en materia de deporte en orden a buscar una solución común para las federaciones vascas y las federaciones territoriales pues, con arreglo al artículo 37.6 del Decreto 16/2006, las federaciones vascas y territoriales deben coordinar sus funciones garantizando una correcta estructura piramidal de las competiciones deportivas.

Las medidas que se contienen en esta Orden Foral tienen carácter excepcional y por ello una naturaleza de temporalidad, de modo que se limitan sus efectos por el plazo estrictamente necesario para responder a la situación de excepcionalidad anteriormente descrita.

Asimismo, las medidas que se contienen en esta Orden Foral respetan el canon de proporcionalidad, pues se han tratado de adoptar aquellas medidas menos invasivas en la autonomía de cada federación deportiva para la resolución de sus situaciones competicionales derivadas del Covid-19. De este modo, será cada federación deportiva la que decidirá los criterios de aplicación y si sus competiciones suspendidas deben o no continuar o, en su caso, cuándo y cómo. Por otro lado, también deberán decidir, en el supuesto de que no se puedan concluir tales competiciones, cuál será el orden clasificatorio a efectos de determinación de personas físicas o jurídicas ganadoras, de ascensos y descensos, etcétera. Téngase presente que lo indicado afecta, además, a la siguiente temporada deportiva en cuanto a la conformación de categorías, grupos, participantes o calendario.

A pesar de que la presente Orden Foral constituye un acto plúrimo que será notificado individualmente a todas las federaciones guipuzcoanas que son objeto de esta intervención administrativa, también parece oportuno ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su general conocimiento y efectos.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,

EK\CV GAO-I-2020-02230

EBAZTEN DU

*Lehenengo. Aplikazio eremua.*

Foru Agindu hau Covid-19aren osasun krisiak eragindako Gipuzkoako kirol federazioen lehiaketa federatu ofizialei aplikatuko zaie.

*Bigarren. Gaitzea Gipuzkoako kirol federazioetako zuzendaritza batzordeak.*

1. Administrazioaren kontu hartze honen arabera, Gipuzkoako kirol federazioetako administrazio organoak ahalmena izango dute erakunde horiek antolatutako lehiaketei dagokienez Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz sor daitezkeen alderdi guztiak ezagutzeko eta ebazteko, eta, bereziki, honako hauek:

a) Amaitutzat jo ez diren lehiaketak berriro hasi behar diren ala ez zehaztea.

b) Lehiaketei berriro ekiten bazaie, noiz eta zer formatutan egin behar diren zehaztuko da.

c) Berriro hasi ezean, edo berriro hasi arren eta amaitu ezin bada, sailkapen ordena zehaztea, eta, bereziki, talde edo kirolari irabazleak edo bestelako kirol eskubideak dituztenak zehaztea.

d) Lehiaketa berrekiten ez bada, edo berriro ekin arren amaiera normala lortu ezin bada, hurrengo denboraldirako maila igoeren edota jaitsieren araubidea zehaztea, beste kirol federazio batzuek beren lehiaketen esparruan duten eskumena errespetatuz.

e) Lehiaketetan parte hartzen duten plantilletako kideak Covid-19arekin kutsatzeagatik edo antzeko egoerengatik lehiaketak eteteko arrazoiak eta prozedurak ebazteko jarraitu beharreko irizpideak zehaztea, bai eta lehiaketen data berriak ezartzea edota ez agertzeen ondorioak zehazteko irizpideak finkatzea ere.

f) Beharrezkoa balitz, lehiaketa eredu edo egitura berriak onestea, bai 2019/20 denboraldia amaitzeko, bai 2020/21 denboraldia hasteko, aurreko apartatuetan deskribatutako antolamendu aldaketen ondorioz.

g) Aurreko apartatuetan adierazitako gaiekin zerikusia duen beste edozein kontu zehaztea, eta, oro har, Covid-19aren krisiaren ondorioz sor daitezkeen gorabeheren edo supostuen aurrean lehiaketei eragiten dien beste edozein alderdi.

2. Kasu horietan, administrazio organoak ebazpenak presaz hartuko dira, eta ez da nahitaezkoa izango balizko erabakien eraginpean egon daitezkeen pertsonei edo erakundeei entzunaldia ematea. Ebazpen horiek arrazoituak eta behar bezala argitaratuak izango dira, federazioaren webgune ofizialean denek jakin dezaten eta ebazpen horiek zuzenean eragiten dieten erakundeei jakinaraziko zaie. Eta, horretarako deitzen den lehenengo batzar orokorrean ere jakinaraziko dira.

3. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzearekin zerikusia duten administrazio-organoek ebazpenek federazio-bidea agortuko dute. Lehiaketa ofizialak antolatzeko ebazpen horien aurka, dagokion errekurtsoa aurkeztu ahal izango da. Departamentu honetan, hilabeteko epean. Zuzendaritza honen ebazpenak administrazio-bidea agortuko du, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

*Hirugarren. Erregelamenduak, oinarriak edo lehiaketa-egutegiak ez aplikatzea.*

Gipuzkoako kirol federazioetako administrazio-organoek eskumen osoa izango dute ebazpen honen aplikazio-eremuko le-

RESUELVE

*Primero. Ámbito de aplicación.*

La presente Orden Foral se aplicará a las competiciones federadas oficiales de las federaciones deportivas Guipuzcoanas que hubiesen resultado afectadas por la crisis sanitaria del Covid-19.

*Segundo. Habilitación a los órganos de administración de las federaciones deportivas Guipuzcoanas.*

1. En virtud de la presente intervención administrativa, los órganos de administración de las federaciones deportivas guipuzcoanas quedan habilitadas para conocer y resolver cuantos aspectos se susciten, en relación con las competiciones organizadas por dichas entidades, como consecuencia de la crisis sanitaria del Covid-19 y, en especial, las siguientes:

a) La determinación de si las competiciones que no se hayan dado por finalizadas deben reanudarse o no.

b) En el supuesto de reanudarse las competiciones, la determinación del momento y formato en el que proceda llevarse a cabo.

c) En el caso de no reanudarse, o pese a reanudarse y no ser posible su conclusión, la determinación del orden clasificatorio y, en especial, la fijación de equipos o deportistas ganadores o con derechos deportivos de otra naturaleza.

d) En el caso de no reanudarse, o pese a reanudarse y no ser posible la normal conclusión, la determinación del régimen de ascensos y/o descensos para la siguiente temporada, respetando la competencia de otras federaciones deportivas en el ámbito de sus competiciones.

e) La determinación de los criterios a seguir para resolver las causas y procedimientos de suspensión de encuentros por contagio del Covid-19, o por situaciones análogas, de las personas integrantes de las plantillas participantes en las competiciones, así como para resolver la fijación de nuevas fechas de encuentros o los efectos de las incomparecencias.

f) La aprobación, si fuese necesario, de nuevos modelos o estructuras de competición, tanto para finalizar esta temporada 2019/20 como para iniciar la temporada 2020/21, que derivasen de la introducción de los cambios organizativos descritos en los apartados anteriores.

g) La determinación de cualesquiera otras cuestiones que guarden relación con los aspectos apuntados en los apartados anteriores y, en general, sobre cualesquiera otros aspectos que afecten a las competiciones ante posibles incidencias o supuestos derivados de la crisis del Covid-19.

2. Las resoluciones de los órganos de administración serán adoptadas en tales casos con carácter de urgencia sin que sea preceptivo el establecimiento de un trámite de audiencia a las personas o entidades que pudieran llegar a resultar afectadas por las eventuales decisiones. Dichas resoluciones serán motivadas y debidamente publicadas para su general conocimiento en la Web Oficial de la federación, sin perjuicio de su notificación a las entidades que resultasen directamente afectadas por las mismas. También serán objeto de información en la primera asamblea general que se convoque al efecto.

3. Las resoluciones de los órganos de administración que guarden relación con la aplicación de lo dispuesto en el presente artículo agotarán la vía federativa. Frente a las citadas resoluciones en materia de organización de competiciones oficiales podrá interponerse el correspondiente recurso en el plazo de un mes ante este Departamento, cuya resolución agotará la vía administrativa de conformidad con lo establecido en el artículo 14.4 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de federaciones deportivas del País Vasco.

*Tercero. Inaplicación de los reglamentos, bases o calendarios de competición.*

Los órganos de administración de las federaciones Guipuzcoanas tendrán facultades plenas para resolver cuantos aspectos

EK\CV GAO-I-2020-02230

hiaketa ofizialei dagokienez sortzen diren alderdi guztiak ebazteko, eta ez zaizkie erabat aplikatuko abian den denboraldiko lehiaketa erregelamenduak, oinarriak edo egutegiak.

*Laugarren. Baliozkotzea.*

Baliozkotu egiten dira kirol federazioetako administrazio organoek ebazpen hau jakinarazi aurretik emandako erabaki guztiak, baldin eta ebazpen honetan xedatutakora egokitzen badira.

*Bosgarren. Indarraldia.*

Foru Agindu honetan aurreikusitako kontu hartzeko salbuespenezko neurriek indarrean jarraituko dute 2019/20 denboraldiko kirol lehiaketak amaitzeko eta 2020/21 denboraldia antolatzeko ezinbesteko epean, eta, gehienez ere, 2020ko abuztuaren 1eko 00:00etan amaituko dira, pandemiaren bilakaeraren eta aplikatu beharreko osasun neurrien arabera luzapenik adosten ez bada.

*Seigarren. Jakinarazpena.*

Agintzea Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2020ko maiatzaren 15a.—Ignacio Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (2230)

se susciten en relación con las competiciones oficiales que forman parte del ámbito de aplicación de la presente Orden Foral sin que les resulten de plena aplicación aquellos reglamentos, bases o calendarios de competición de la temporada en curso.

*Cuarto. Convalidación.*

Quedan convalidados todos aquellos acuerdos que, en su caso, ya hubiesen dictado los órganos de administración de las federaciones deportivas con anterioridad a la notificación de esta Orden Foral pero que se acomoden a lo dispuesto en la misma.

*Quinto. Vigencia.*

Las medidas excepcionales de intervención previstas en esta Orden Foral mantendrán su vigencia durante el plazo imprescindible para la finalización de las competiciones deportivas de la temporada 2019/20 y para la organización de la temporada 2020/21, y, como máximo, finalizarán a las 00:00 horas del día 1 de agosto de 2020, salvo que se acuerde una prórroga de la misma en función de la evolución de la pandemia y de las medidas sanitarias aplicables.

*Sexto. Notificación.*

Ordenar la publicación de la presente orden foral en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 15 de mayo de 2020.—El secretario técnico, Ignacio Sainz Paredes. (2230)

EK\CV GAO-I-2020-02230